

FUNTZESKO BALIABIDEAK

Gure enpresa ondo funtzionatzeko eta errentagarria izateko, baliabide mota desberdinak behar ditugu.

Lehenik, baliabide fisikoak ditugu. Horien artean daude mota guztietako ibilgailuentzako garaje-plazak, adinekoentzat, ezinduentzat eta haurdunentzat sarbide errazak, tokiko informazio-bulegoak, ordenagailuak eta beste ekipamendu informatiko batzuk. Gainera, auto elektrikoak kargatzeko guneak ere izango ditugu.

Bestetik, baliabide intelektualak ditugu, adibidez gure marka erregistratua, panteteak, software propioa eta gure ideiaren ezagutza. Giza baliabideei dagokienez, langile kualifikatuak izango ditugu, sektorean esperientzia dutenak, hainbat hizkuntza dakizkitenak eta trebetasun teknikoak dituztenak.

Finantza-baliabideak ere beharrezkoak dira. Horretarako, funts propioak erabiliko ditugu, bankuetako maileguak, kanpoko finantzaketa eta inbertitzaile berriak bilatuko ditugu. Gainera, babesleak lortzea eta beste enpresa batzuen publizitatearekin diru-sarrerak eskuratzea aurreikusten dugu, adibidez kartelen edo aplikazioaren bidez.

Beste enpresek ez dituzten abantaila batzuk ere baditugu. Tokiko merkatua eta kontsumo-ohiturak ondo aztertu ditugu, eta araudia zein lehiakide posibleak ezagutzen ditugu. Gure patentea erregistratuta dago, eta horrek babes berezia ematen digu. Horrez gain, tokiko bulegoak eguneko 24 orduetan irekita egongo dira, eta arazo teknikoak azkar konpontzeko sistema bat izango dugu, autoen sarrera edo irteera ez atzeratzeko.

Gure langileak oso prestatuta egongo dira, hizkuntza batzuk jakingo dituzte eta, gainera, bezeroei laguntzeko gai izango dira, baita turismoari buruzko informazioa emateko ere. Gure teknologia propioa izango da, eta aplikazio berezi bat eskainiko dugu deskontuekin eta puntu-sistemearekin. Erabilera-txartel bereziak ere egongo dira (10, 20 edo 30 erabilera-erabilerakoak), merkeago ateratzeko eta zerbitzua gehiago erabiltzeko.

Azkenik, bezeroak pozik egoteko, zerbitzu osagarriak eskainiko ditugu, hala nola aseguru bereziak, auto-garbitzea, tailer mekanikoa eta oinarritzko produktuak saltzeko makinak (elikadura, higieena edo parafarmazia). Gauza guzti horiek egiteko alokatzen ditugun partzelak oso preparatuta egongo dira. Horrela, bezeroak arazorik gabe eta esperientzia on batekin joango dira.

